

# Agerre

Juan Luis Zabala



Agerre

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2026ko maiatzean*

Azaleko irudia eta diseinua:

Iván Landa

Maketazioa:

Asier Beltza

© Juan Luis Zabala

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-119-0

L.G.: D 334-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

[gertugrafika@gmail.com](mailto:gertugrafika@gmail.com)

[www.gertu.net](http://www.gertu.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasagarrian kudeatutako basoetatik dator.

# Agerre

*Juan Luis Zabala*

erein

*Aginako zero bat zen  
gure inperio guztia.*

JOXE AZURMENDI

*Hezurreraino sartua  
galtzailearen arantza.*

XABIER LETE

*Hemen datza gorpu bizi  
herri bat izan zena.*

JOSEBA SARRIONANDIA

Lehen atala

## ERRIETA

*Ama zenarekin egin nuen amets. Ohe ondora etorri eta ea zeren zain nengoen esaten zidan behin eta berriz, hiltzeko behingoz, hil egin behar nuela derrigor, dena prest zegoela eta ni hiltzea baino ez zela falta. Ni hiltzeko prestatu nintzen, amak esaten zidan bezala, eskuak bular gainean gurutzatuta, baina ez nekien nola hil.*

RAMON SAIZARBITORIA

# 1

Han ez banengoen ere, neure begiekin ikusi banu bezala daukat irudia iltzatuta gogoan: aita, txirrindulariz jantzita, aldamenean duen bizikletari eskuekin eusten, Mari Karmeni barkazio eske. Errepide bazterrean daude, zebra-bidearen gainean, zutik biak, eta esaten ari direna entzun gabe ere aise igartzen da Mari Karmen oso haserre dagoela eta ez duela batere asmorik aitaren barkamen erregu behin eta berriro berritua onartzeko.

Ordu laurden edo hogeitu minutu inguru egon omen ziren horrela, aitak kontatu didanez, baina alferrik izan ziren egindako ahalegin guztiak. Hasi eta buka, Mari Karmenek, suminduta, ez zuen errieta eta gaitzespeneko hitzik baino izan aitarentzat.

Zamuraingo martxa zikloturistan gertatu zen istripua. Aitak urtero parte hartzen du, egutegiko hitzordu maiteenetakoa du, gure herritik pasatzen delako, besteak beste, Urrarrietatik. Eta justu gure herritik pasatzean gertatu zen istripua.

Martxa zikloturistetan, errepideak ez dira ixten, eta trafikoko arauak beti bezala bete behar dira. Eskuineko erreitik ibili behar da une oro, eta semaforoa gorri dagoenean gelditu. Zebra-bideetan, horrenbestez, oinezkoei pasatzen utzi behar zaie. Beraz, teknikoki eta legearen aldetik, istripuaren erantzulea aita izan zen, zebra-bidea gurutzatzen hasi berri zela harrapatu baitzuen Mari Karmen bizikletarekin. Zorionez, harrapatu aurretik frenatzen has-teko astia izan zuen eta, Mari Karmen lurrera bota bazuen ere, ez zion zauririk eragin, eskuan urratu txiki batzuk besterik ez. Andre indartsua da, eta 85 urte izateak ez zion eragotzi bere kabuz altxatzea, aitak eskainitako laguntzari uko eginda.

Aitak dio bat-batean eta begiratu gabe hasi zela Mari Karmen zebra-bidea gurutzatzen, eta zebra-bideak ezin direla horrela gurutzatu, baina alferrikakoa da eztabaida horretan sartzea. Mari Karmenek esan balio ez kezkatzeko, bazekiela nahi gabe harrapatu zuela, asmo gaiztorik gabe, eta jarraitzeko lasai aurrera bizikleta gainean jarrita, horixe egingo zuen aitak, baina, Mari Karmenen barkamenik jaso gabe, kopetilun eta burumakur itzuli zen etxera, Zamuraingo martxa zikloturista bertan behera utzita, lehendabiziko aldiz azken hogeita zazpi urteetan.

Ezer gutxi behar izaten du aitak kezkatzeko, are gutxiago edozergatik errudun sentitzeko. Ezer ez eta kezka. Ezer ez

eta kulpa. Haren neurrietara iritsi gabe bada ere, neuk ere badut gaitz hori. Marikulpa ni, Kulpamari aita. Askotan esan izan diot neure buruari, eta baita parean harrapatzen dudan edozein laguni ere, erdi txantxetan baina erabat ukatu gabe, horregatik aukeratu nituela kriminologia ikasketak: benetako kriminal lazgarrien istorioak ezagutu eta, haiekin ohituta, neure erruak, konparazioan, ezer gutxi direla sentitzeko, niretzat hain astunak izan arren.

Nire kriminologia ikasketak ere badira, berez, horrela begiratu nahi baldin bazaie behintzat, krimen bat; ez ikasten ari naizena ikasten ari naizelako, ikasketak Suedian egiten ari naizelako baizik, Malmoko Unibertsitatean, aita Urrarrietan bakarrik utzita. Horrela ondo dagoela dio berak, urteko bi bisitaldiekin eta asteroko bideo-deiarekin ondo moldatzen garela, baina batzuetan susmoa dut barkadadeak eragiten dion mina disimulatzeko ahaleginak egiten dituela nire aurrean. Beste batzuetan, aldiz, hori ere egia da, pentsatzen dut ez ote dagoen lasaiago ni hemen egonda, etxetik urrun.

Joan den igandeko istripua, bere txikian, susto hutsa izan arren, ez da huskeria aitarentzat. Aztoratuta dagoela iruditzen zait, ezinegona nagusitu zaiola harrezkero, eta niri ere eragiten dit horrek, kontzientziak ausikitzen bainau, Urrarrietan banengo aitari Malmotik ezin eskain diezaiokekan babesa eskaini ahal izango niokeela pentsarazita, horretaz ziur egoterik ez badut ere.

## 2

Bizikletarekin harrapatu zuena beste norbait izan balitz, errazago ahaztuko zuen gertakaria, baina Mari Karmen ez da inoiz nornahi izan aitaren bizitzan. Mari Karmen Josu zenaren ama da, eta Josu aitaren txikitako lagunik onena izan zen. Auzo berean ez ezik, etxepe berean haziak, adin berekoak –1958an jaioak–, eta kalera jaitsitako baserritar euskaldun fededunen seme, biak, Josu eta Pello, herrian, Agiña eta Agerre, bakoitzaren erreferentziazko baserriaren izenez ezagunak: Josuren kasuan amarena, Pelloren kasuan aitarena. Jesús Mari Alberdi Soraluze eta Pedro Mari Larrañaga Alcorta, bakoitzaren Espainiako Nortasun Agiri Nazionalaren arabera.

Aitak ez zidan xehetasun askorik eman Mari Karmenek egindako errietan esan zizkionei buruz, baina ziurnago zebra-bidearen aurrean gelditu ez izateaz gain besterik ere leporatuko ziola prediku sumindu hartan. Zuzenean izan ez bazen, zeharka.

Josu, Mari Karmenen semea, aitarekin batera hasi zen politikan militatzen, ezker abertzalean zehazki, artean

Franco bizi zela, baina bien bideak banandu egin ziren gero, Josu, artean oso gazte zela, ETako kide egin eta sasion sartu zenean, hau da, klandestinitatera pasatu zenean («sasira», orduan esaten omen zuten bezala).

Ni artean jaio gabe nengoen, jakina, eta ez nuen garaia ezagutu, baina 1970eko hamarkadaren bigarren erdian, aitak kontatu izan didanaren arabera, ETako kideei estimazio eta are mirespen handia zieten herritar gehienek, edo askok behintzat, heroitzat hartzen zituzten, antifaxistak izateaz gain inoren alde dena emateko prest zeuden abertzale ausartak zirelako, eta eredugarritzat hartzeko moduko iraultzaileak. Ikuspegi hori oso zabalduta zegoen Europako beste leku batzuetan ere, Irlandan batik bat.

Bere historiako lehen urteetan ETak ez zuen inor hil. Aurrerago, ETaren lehen hilketek ez zuten arbuiozko erreakzio handirik eragin, motibo askorengatik: batetik, ETak atentatu bidez hil zituen lehendabizikoak Francoren erregimenarekin estu lotutako pertsonak zirelako, diktaduraren morroiak, edo, bestela, haren kolaboratzaile zuzenak: orduan «txakurrada» deitzen zioteneko kideak, hau da, guardia zibilak eta polizia nazionalak –Ertzaintza geroago sortu zen, 1982an–, militarrek edo, kasu askotan, salatariak, «txibatoak» edo halakotzat salatuak; bestetik, ETaren indarkeria diktadura faxistari emandako erantzuntzat jotzen zen, eta Francoren aurka egiten zen guztiak zeukan garai hartan «herria» deitzen zenaren onespena, hau da, herritar gehienena ez baldin bazen bai behintzat politikaren inguruan

kezka eta ardura zuten herritar gehienena. Horrez gain, kaleko errepresio itogarria, ETAko kideek –eta ez ETAko kideek bakarrik, Francoren aurka ezer egin izanaren susmagarri zen edonork– polizia-etxeetan jasaten zituzten torturak eta talde parapolizialek egindako atentatuak –horietako asko hilketak– zuribide zuzentzat jotzen ziren ETarentzat eta ETAk egindako atentatu gero eta ugariago eta odoltsuagoentzat.

Bere belaunaldiko euskaldun askok bezala, giro horretan hartu zuen aitak kontzientzia politikoa, eta askotan mintzatu zait, xehetasun handiz, garai hartaz, gehiago bere burua zuritzeko, nik uste, asmo pedagogiko edo proselitistaz baino. Ez zuten inoiz atxilotu, eta manifestazioren baten ondoren borra-ukaldiren bat jasotzeaz aparte ez zuen askorik nozitu bere larruan orduko errepresioa. Aitaren curriculum antifrankista eta antifaxista ez da berak akaso nahiko lukeen bezain oparo eta distiratsua.

### 3

Laudorio ugari eta askotarikoak jasotzen ditu gaur egun bizikletak, giza garraiorako tresna merke, osasuntsu eta ekologikoa baita. Baina, gizakiak sortu eta egiten duen orok bezala, badu gaitzeslerik eta aurkaririk ere, badu kriminalizatzen duenik. Kriminologiaren eta gizakiaren arteko lotura ezin estuagoaren beste froga bat.

Ez litzaidake batere inportako eta are dibertigarria ere irudituko litzaidake bizikletaren gaitzespen eta kriminalizatze hori... aitari horrek ere kezka eta ezinegona eragingo ez balio.

Semaforo gorriei kasurik ez egitea, errepidean arduragabe jokatzea edo beste edozer gauza leporatzen badie norbaitek zikloturistei, dela lagunarteko solasaldi batean, dela egunkarian, irratian, telebistan edo sare sozialetan, aita berehala hasten da bere burua defendatzen, berari pertsonalki zuzendutako salaketa balitz bezala.

Behin, bidegorri batean mantso-mantso paseatzen zihoala, bat-batean eta nahiko zakar frenatu behar izan

zuen bihurgune baten ondoren, bospasei urteko haurra agertu zitzaiolako hantxe geldirik eta traban. Haurraren aitonak kargu hartu zion aitari, eta aitak, nahiz eta jakin gizon hark ez zuela batere motiborik berari errieta egiteko, denbora behar izan zuen pasadizoa ahazteko.

Aitak aztoratzeko motibo gutxi balu bezala, polemika mingotsa sortu da, orain, aitaren bizikleta-ibilbideetako ohiko errepide batean, Urrarrieta eta Atekaitz artekoan, agertu baitira zikloturisten aurkako pintadak asfaltoaren gainean eta errepide ertzeko auzo bateko frontoiaren frontisean.

Ez da erraza elkarbizitza errepide horretan. Zikloturistek oso maitea dute –jubilatuek batik bat, edo, aita bezala, lanean jarraitu arren adinean aurrera samar doazenek– beren kirol kutuna aldapa handirik igo beharrik gabe lasai antzean praktikatzeko aukera ematen dien bakanetako bat delako inguruetan, trafiko handirik jasan beharrik gabe eta paisaia eder batean murgilduta. Baina Atekaitzeko eta hara iritsi aurreko auzo txikietako biztanleek gero eta ezinikusi handiagoa diete, bazterbide gabeko errepidea delako eta zikloturistak kontu handiz aurreratzen gidatu behar izaten dutelako autoa herritik edo auzotik irteten diren eta herrira edo auzora itzultzen diren bakoitzean. Herri txikia da, izan ere, Atekaitz, are txikiagoak bideko auzoak, eta Urrarrietarainoko errepidea dute mundu zabalarekiko lotura nagusi, ia bakar.

Batetik, aita amorrarazi egiten dute bizikletaren aurkako purrustadek, baina, bestetik, ezin ditu burutik kendu

horietarako dauden arrazoiak, eta milaka buelta ematen dizkio bere buruari bizikletan ibiltzera ateratzen denean ez dela ezer txarririk egiten ari konbentzitu nahian.

Hala ere, bizikletaren gaitzeste eta kriminalizatze orokor horiek eragindakoen gaineratik dago, dudarik gabe, Mari Karmenek egindako errietak aitari eragindako ezinegona. Eta kasu horretan bizikleta tartean egokitu den elementu zirkunstantziala baino ez da, inola ere ez benetako protagonista.

ETAk lehen atentatuen urteetan herritar askoren babesak izan arren, gurasoentzat ez zen, noski, aise onartzeko moduko albistea izango semea edo alaba ETAn sartu izana. Atxilotua eta torturatua izateko arriskua handia zelako, eta hiltzekoa ere aintzakotzat hartzekoa. Beste alde batek begiratuta, gainera, ez da aise onartzekoa izango zure semea edo alaba atentatuak egiten dabilela jakitea ere, eta jendea hiltzen ere saiatuko dela, jendea hil egingo duela akaso.

Mari Karmen, ordea, harro egon zen beti ETako kide baten ama izateaz, eta semeak etxetik alde egin zuenez geroztik gure aitari beste modu batez begiratzen eta hitz egiten hasi zen, mesprexutik gero eta gertuago, aitak dioenez, hori izan da behintzat beti aitaren irudipena. Agurra ere ukatu zion behin baino gehiagotan eta, berarekin hitz egin beste erremediorik ez zuenean –auzoak izan baitira beti–, labur eta motz hitz egiten zion, ume garaian erakutsitako gertutasunaren aztarnarik gabe.

Josu Donostian izandako tiroketa batean hil zuen guardia zibil batek, 1987an, duela gutxi bete ziren 31 urte. Josuk 29 zituen. Komando bereko beste bi kiderekin muga pasatu zuen eta hirurak atentatu bat prestatzen ari ziren, bertsio ofizialaren arabera.

Hamabi urte ziren Franco hil zenetik eta ordurako airtak erabat utzia zuen militantzia politiko aktiboa. Nahiz eta sentimenduz zein ideologiaz abertzale eta independentista izateari ez utzi, ETArekin kontrako iritzi gero eta sendoagoa hazi zitzaion, erakunde haren aurkako adierazpen eta manifestazio publikoetan parte hartzen ez bazuen ere, betiko etsaiari ez laguntzarren, bere hitzetan esanda, kosta ahala kosta indarkeriaren monopolioari eutsi nahi zietenei, hots, estatu zapaltzaileari eta haren morroiei.

Txikitako lagunik onena izan zuenez, Josuren hiletara joan zen aita, baina hilaren omenezko adierazpen eta aldarri politikoak hasi zirenean etxera itzuli zen, guztiz abailduta, Mari Karmeni doluminak adierazteko barrurik gabe, egingo zion harreraren beldur. Bertsio ofizialaren gezurra eta Josuren hilketa salatzeke antolatu zen manifestazioan parte hartu zuen, baina amaitu baino askoz lehenago irten zen, beste lagun batzuekin batera, oihukatutako kontsigna batzuekin deseroso zegoelako eta barrikadak antolatzeke prestakizunetan ikusi zituelako manifestari batzuk, aurpegia estalita eta koktel molotovak eskuetan («pontxoak» orduko erabiltzaileen hiztegian).

Ia lau hamarkada geroago, joan den igandean, istripuaren egunean, hitz egin ote zion Mari Karmenek aitari Josuri buruz, eta ETArri buruz, zebra-bide ondoko errietaldian? Kontu horri bueltak ematen nabil egunotan. Ez diot aitari galdetu nahi. Joan den asteko bideo-deian esan ez baldin bazidan, kontatu nahi ez didalako izango da. Baina ia ziurtzat jotzen dut aipamenei bat egingo ziola, zeharka bada ere.

Mari Karmen bizikletarekin harrapatu eta hankaz gora bota zuena, aita izan beharrean, euskal preso politikoen eskubideen aldeko maillota jantzitako txirrindulariren bat izan balitz, ez zion hari hitz mikatzik esango, berehala emango zion barkamena eta aurrera jarraitzeko adoretuko zuen. Aita izan, ordea, Mari Karmen harrapatu zuena. Bai zorte txarra!

Aitarekin bideo-dei bidez baino ez hitz egiteak badu abantailarik ere: esaten duen guztia grabatu dezaket berari ezer esan gabe. Baimena eskatu beharko nioke? Akaso, zorrotz jarrita, bai. Baina gaur egun, egiten dugun guztia hain behatuta eta kontrolatuta dagoenean, merezi al du horrelako txikikerietan ibiltzea?

Grabatu ez ezik, batzuetan transkribatu ere egiten dut aitak kontatzen didana, eta baita komentatzen dizkidan iritzi eta gogoeta batzuk ere, pixka bat moldatu, txukundu eta dotoretuta, baina esandakoaren muinari traiziorik egin gabe. Aitari buruzko txosten moduko bat daukat osatua dagoeneko, edo aitari buruzko txosten baterako oinarri dokumental koxkor bat bai bederen.

Pasarte honetan nahiko ondo igartzen da nor den Mari Karmen aitarentzat. Istripua baino askoz lehenagokoak dira haren hitz hauek, duela hiruzpalau urtekoak:

Umetan ia etxekotzat baninduen ere, eta txikitatik estimazio handia diodan arren, emakume horrek beti beldurtu izan nain, Ane, egia osoa esan behar badinat.

Entzutekoak zitunan haren errietak, umeak ginelan, Josu eta biok erdaraz hitz egiten entzunez gero: «Zenbat aldiz esan behar dizuet euskaraz hitz egiteko? Belarrimotzak zarete ala?».

Gehienetan erdaraz mintzatzen gintunan elkarrekin Josu eta biok. Hik eskolan euskaraz ikasi dun ume-umetatik, baina gure haur eta nerabe garaian ez zunan ikastolarik Urrarrietan. Erdaraz ikasten geninan, gaztelaniaz, gaztelaniazkoa zunan ikusten genuen zuri-beltzeko telebista apurra, eta gaztelania zunan nagusi irratian, egunkarietan, komikietan, liburuetan eta abarretan ere, denean. Horrez gain, euskaraz ez zekiten erdaldunak zitunan gure ikaskide eta lagunetako batzuk.

Nire gurasoek ere euskaraz hitz egiteko agintzen zigutenan, baina Mari Karmenek baino modu lasaiago eta ulerkorragoan, hainbesteko espanturik gabe.

Euskararen kontuan bakarrik ez; denean zunan, eta izan dun beti, oso zorrotza Mari Karmen. Harekin ez zagon aitzakiarik, are gutxiago barkamenik.

Manifestazio baten ondorengo istiluetan gomazko pilota batek Josuri betondoa ubeldu zionean

—zorteko izan zunan begia bete-bete harrapatu eta zanpatu ez ziolako—, ez pentsa amak errieta egin zionik. Poliziak madarikatu zitinan eta semeaz harro agertu. Ni ere izan nindunan manifestazio hartan, baina istiluak hasi aurretik ospa egin ninan handik, barrikadak jartzen hasi zirenean, izuak jota.

Josuk esanda zakinat bere amak nitaz galdetzen ziola batzuetan, jakin nahian ni ere manifestazioetan eta abarretan ibiltzen ote nintzen, ni ere Josu bezain konprometituta ote nengoen aberriaren kausarekin eta etorkizunarekin.

Ezin dun jakin, eta horrelako usteak okerrak izaten ditun ia beti, baina sarritan pentsatzen dinat Josu ez ote zen sartu ETAn amak berarengandik espero zuena egiteko, benetako abertzale ausarta zela erakutsita. Gogorra dun hori horrela esatea, baina ideia hori nahiko sartua zaukanat buruan.

Josuk, ETAn sartuta, herritik alde egin zuenetik, hoztasunez tratatu nindinan beti Mari Karmenek, eta Josuren heriotzaz geroztik hoztasun hori gaizki disimulatutako mespretxu bihurtu dun, gutxienez. Semearen parekoa ez izatea leporatuko balit bezala.

Beharbada nire irudipen hutsa dun, paranoia, agian oker nagon. Hik beti esaten didan neurotikoa naizela, «neurotiko obsesiboa» zehazki, eta neure burua edozeren eta denaren errudun eta inoren eta oro-ren gorrotoaren xedetzat jotzen dudala beti. Horretaz

asko dakin, ikasia haiz arlo horretan, eta seguru asko arrazoi izango dun. Baina Mari Karmen... Nik ez dinat esaten ETako kide guztien amak horrelakoak direnik, baina Mari Karmen beti izan dun, niretzat, Bibliaren Itun Zaharreko Jaungoiko gupidagabe eta beldurgarriaren antzik handiena zeukan hezurharagizkoa.

Hamabost edo hamasei urte zituela, aitag ziuertzat jotzen zuen urte batzuen buruan ETAn sartuko zela, bere lagun adinkide batzuekin batera, Josu horien artean.

Adingabe zela murgildu zen militantzia politikoa, lagun haiekin batera, herriko kaleetan pintadak eginez: GORA ETA!, PRESOK KALERA, HERRIAK EZ DU BARKATUKO...

Askotan gogoratzen du bere ikasgelako neska baten aitaren aurkako pintada bat ere egin zutela, poliziekin kolaboratzen zuen salataritzat zutelako: TXIBATO TXAKURRA, EGURRA! Neska haren aitag kanpora joan behar izan zuen, familia guztiarekin batera, ETak egindako mehatxuen ondorioz. Oroitzapen mingots eta artegagarria, ezten bat aitaren bihotzean.

Erdipurdiko ikaslea zenez eta etxean diru premia zegoenez, oinarrizko ikasketak amaitu eta gero, hemeretzi urterekin egin zuen soldaduska aitag, Zamora probintziako Monte la Reina herrian, eta itzulitakoan gaur egun ere lanean jarraitzen duen lantegian hartu zuten. Bere

bizimodu berrian, ETAn sartzeko asmoa apurka-apurka desegiten joan zen.

Josu, aldiz, oso gazterik sartu zen erakundean, soldaduska amaitu bezain laster, inori ezer esan gabe. Josuk pauso hura berarekin batera emateko aukera eskaini ez izanak amorrarazi egin zuen aita. Josuk ez zuen uste, dirudienez, aita behar bezala prestatua zegoenik horretarako. Gerora, argi izan zuen aitak Josuk arrazoi zuela eta zuzen jokatu zuela. Gaurko ikuspegitik begiratuta, halaxe da, izan ere, dudarik gabe.

## 6

Edozein psikologo, apaiz edo polizia baino aitorle hobea izan daiteke, batzuetan, adiskide bat. Nik hemen Marta daukat, ikaskide eta pisukide italiarra, nire kezka, beldur eta damu guztien lekukoa.

Ez da kasualitatea bion telesail faboritoetako bat, une honetan gure kutunena, *Criminal* izatea. Atal bakoitzean, susmagarri bati egindako galdeketa erakusten da, horretan espezializatutako poliziek egina, galdekatuaren abokatu defendatzailea bertan dela. Torturarik gabeko galdeketak dira, jakina, polizia galdetzaileen trebetasun psikologikoan oinarrituta egindakoak. Ez dira izango beharbada benetako galdeketen antzekoak, ez behintzat Euskal Herriko polizia-etxeetan duela hamarkada batzuk ohikoak izaten omen zirenak bezalakoak, ezta gaur egungoen tankera-koak ere akaso, poliziak, oro har, leku onean uzten baititu telesailak. Gaizkileek –anker eta zinikoak kasurik gehienetan– pazientzia galarazten dieten arren, galdetzaileek eutsi egiten diete ia beti, nekez bada ere, indarkeriara

jotzeko aukerari. Baina Martak eta biok adi-adi irensten ditugu, gidoiak bikainak direlako eta aktoreak ere maila handikoak.

Marta eta bion arteko solasak, gure zaletasunen ondorioz seguru asko, galdeketa gisakoak izaten dira. Tira, ez beti, baina batzuetan bai. Gustatzen zaigu adiskideak jakin-minari mugarik eta frenorik jarri gabe egindako galderei erantzun behar izatea. Galbaherik gabe. Azken batean, galdekatzaileak ulertzen ez duen hori, batzuetan, galdekatuak ere ez du ulertzen, hasieran, ez behintzat kontzienteki, harik eta, hari-muturrak lotu ondoren, lehen ez zekien zerbait ikasten duen arte bere buruari buruz. Horretarako, galdera egokiak egiten jakin behar da, galdekatuaren errailetako zokondorik ezkutuenetarainoko bidea egiteko zorroztasuna dutenak.

Edo horrelako zerbait. Kriminologiaren lilurak.

Aitari buruz hainbesteko kezkek zergatik ditudan galdetu dit gaur Martak, azken batean osasunez ondo baitago eta ondo bizi baita. Arrazoen bila jarri nau galdera horrek.

Nik hamabost urte nituela geratu zen alargun eta hori, emaztearen galeraren minetik aparte ere, ez zen nolana hiko pastela bera jaio zen garaian jaiotako gizon batentzat. Haren amak ere, amona Euxebik, ezin izan zion lagundu, ezinduta eta gaixorik baitzegoen ordurako, hil-hurren ia; eta ama zenaren gurasoak, hain gaizki egon gabe ere, inor zaintzeko baino gehiago zeuden zainduak izateko. Izan zituen zailtasunak eta iritsi ezinak, hasieran, baita benetako

desesperazioko boladak ere, baina pixkanaka indartzen joan zen, eta beti eskertu beharko diot nire alde saiatu den bezala saiatu izana.

Ni, berriz, bere familia bakarra gaur egun, Malmon nago, etxetik bi milatik gora kilometrora, eta ez dakit non biziko naizen hurrengo urteetan. 61 urte ditu aitak. Egia da osasunaren aldetik ez duela aparteko arazorik, eta lagunarte estimatua duela herrian, baina laster jubilatuko egingo da eta ez dakit etxeko bakardadeak zer neurritan erasango dion.

Begien bistako arrazoi horiei aitaren izaera gehitu behar zaio, neuk ere neurri batean oinordetzan neureganatua:

- Zorrotza eta estua bere buruarekin.
- Beti inoren gogaikarri, kaltegarri edo gaitzesgarri gertatzeko beldurrez.
- Isilean eta bakarrik sufritzera emana.

Martak ez du horrelako kezkarik. Bi gurasoak bizi ditu, osasun onean biak, eta ez dute bakarrik geratzeko batere arriskurik. Bi neba eta ahizpa bat ditu Martak, eta bera da etxetik urrun bizi den bakarra. Neba bat gurasoen bizi da eta halaxe jarraituko du gurasoak bizi diren artean, down sindromeduna baita eta ez baitu aski autonomiarik etxetik kanpo bizitzeko. Beste neba eta ahizpa ezkonduta daude. Nebak gurasoen herri bera du bizileku, Positano, eta ahizpa handik gertu dagoen beste batean bizi

da, Praiano izenekoan. Denak ere, Marta izan ezik, Salerno probintzian.

Orain atzerrian gustura badabil ere, Martak ez du luzaz Positanotik urrun bizitzen geratzeko inolako asmorik. Argi dauka ez duela desbideratuko asmo sendo horretatik ez bikotekiderik maitagarrienak ez lan-eskaintza tentagarri eta gogobetegarrienak. Futitzen da *cittadino del mondo* –munduko herritar– direla aldarrikatzen duten kosmopolita lainezatuez, baina ez ikuspegi nazionalista edo abertzale batetik, Euskal Herrian ohikoa den moduan, ikuspegi sinpleago baina agian sakonago batetik baizik, familiak eskaintzen duen babesaren ikuspuntutik.